

Ez baimendu despidoak



JUAN MARI ARREGI

Euskal Herrian zehar langileen eta herritarren manifestazio eta mobilizazio ugari izaten ari da, enpresa pribatuetako enpleguari eusteko. Sektore publikoan ere, osasunean eta hezkuntzan bereziki, enplegu prekarioa duintzeko mobilizatzen jarraitzen dute, 40.000 pertsona baino gehiagori eragiten baitie egoera horrek.

Sektore pribatuan, kaltetuen kopuruagatik nabarmendu ditzakegu Tubacex, Aernova, M. Torres, ITP-Aero Castings eta beste batzuk. Sektore aeronautikoak ere eragin handia du Ipar Euskal Herrian, 4.000 pertsonak egiten baitute lan alor horretan. Ezin dugu ahaztu enpresa horien inguruan enpresa txiki gehiago ari direla azpikontraturik hornitzaile lanetan. Ehunka langile kaleratu nahi dituzte, eta kontratua desegiteko espedienteak ezarri nahi dizkiete. Gainera, xantaiak eginez, soldatak eta osagarriak murrizten saiatzen ari dira. Koadroa osatzeko: gogoratu enpresa horietako askok hainbat unetan jaso dutela diru publikoa.

Gauzak horrela, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko administrazioek ezin dute beste inora begiratu. Beren esku dago espediente horiek baztertzea. Pandemiak areagotutako krisia, sektore eta enpresa guztiei eragiten ari dena, ez da egiturazkoa. Egoera koiunturalak dira, eta ekoizpen-sistema berregokitzea eskatzen dute. Krisi koiuntural honek irauten duen bitartean, enpresek badituzte beste mekanismo batzuk kontratuak deuseztatzea eta soldatak murriztea eskatzen ez dutenak. Eta badakite, administrazio publikoek ere badakitenez.

Are gehiago, diru publikoa jaso duten enpresak gertutik kontrolatu beharko lirerateke, xantaiak, itxierak eta deslokalizazioak saihesteko. Kapitalak dena du jokoan. Orain pandemia da aitzakia eta bihar beste aitzakia batzuk izango dira. ●



Pobreziaz erabat deskonektaturik

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Baiona, 18:00etatik goiti, bakar batzuk karrikan: txakurdunak, desobediente batzuk, eta hirurogei bat urteko emakumea. Azken hau, esku-zaku zabal garbia besazpian, itxuraz egunaz Espainiako karrika honetan berean dendaz denda kontsumitzen aritzen ahalko litzatekeenarena. Baina, dendak ez, karrikako zakarrontziak ditu miatzen, sabela betetzeko zeozer atzemateko esperantzarekin. Inoiz ez nuen ikusia, eta irudikatu dut COVID-19ak eragin krisi sozialaren biktima bat izan zitekeela: zeukan lan prekarioa galdurik, edo laguntza sozialak bukatu-rik, egunetik biharamunera supermerkatua edo kaleko fruitu-denda desertatu behar izan duena. Pôle Emploi-n lanean dabilen ezagun batek kontatu berri dit segitzen dituen ehun bat lan bilatzaileen artean hamar inguru direla karrikan bizi -COVID-19 garaia aitzin bakarra zuela zehazten zidan, kezkatu-rik-. Hortan gara: milaka bizi kolpatzen ditu pobrezia bortitzak -iaz hamar milioi biziren langa gainditu zuen 67 milioi laguneko Frantzian-. Oinak lurrean ditugunok, gutiago ala gehiago, irudika dezakegu errealitate hau.

Baina piramidearen puntatik, gure biziak bideratzen dabilzan agintariak ez dute horren berri. François Bayrou politikari bearnes ezaguna dugu Frantziako Planaren Goi-Komisarioa, tartean erronka sozial eta ekonomikoei buruz gobernu kontseilatzen dabilena. "Niretzat, hilabeteen 4.000 euro irabazten dituen klase ertainekoa da; 4.000 euroko errenta jasotzean ez gara aberats" erantzun berri dio RTL telebistako kazetariari. Kokatzeko: %15ak du Frantzian 3.000 euro baino gehiago irabazten, %30ak 1.500 euro baino gutxiago irabazten ditu eta justu %8ak du 4.000 euro horiek baino gehiago jasotzen hilabeteen. 2016an Jean-François Copé politikariak -Aurrekontuen ministeritzako zein Barne ministeritzako ordezkari izandakoak- erantzun "txokolatina 10-15 zentimo balio ditu" esaldiaren gustu garrantz bera du Bayrourenak.

Piramide politikoan gora egin arau, geroz eta deskonektatuagoak dira. Aldi berean, Frantziako aberatsen esfera hermetikotik urtero bilioiak dira zerga ihesean galtzen. Errealitate honetaz maleruski, ez dira hain deskonektatuak. ●